

**ADIERAZPEN DIASPORIKOAK**

**FEMINISMOA ETA POSIBILITATEAREN**  
**POLITIKA**



[www.visionlibros.com](http://www.visionlibros.com)

# FEMINISMOA ETA POSIBILITATEAREN POLITIKA

## ADIERAZPEN DIASPORIKOAK

**Kritika Kulturalaren Ikuspuntutik  
by Imanol Galfarsoro**

Rosalind Delmar (1986:13) ekintzaile eta irakasle feministaren arabera:

Feminismoa, emakumeen posizioa gizartean aldatzeko desira eraginkortzat definitzen da gehienbat.

Eta...

Feminista bat, emakumeek euren sexuaren ondorioz diskriminazioa jasaten dutela, ezeztatuak eta betegabeak mantentzen diren behar bereziak dituztela, eta behar horien betetzeko ordene sozial, ekonomiko, eta politikoan eraldakuntza erradikala derrigorrezkoa dela pentsatzen duen norbait da. (Ibid:8)

Feminismoaren ikuspegi eta egitarau politiko eta sozialek, eta, ikusmen kultural berriek, aldakuntza nagusiak ekarrarazi dituzte azken hamarrurtealdietan. Jarrera, ekite eta diskurtso feminista desberdinek eragin nabarmena izan dute: Bai, behin batean ohizkoak ziren teoria sozialaren kategoriak desafiatzerakoan, bai, eremu publiko eta pribatuaren esparruak biztandu eta ber definitzerakoan, eta, baita, jakintza, kultura eta arteari buruz pentsatzeko eta aritzeko modutan ere.

Feminismoaren teoriak teoria sozialaren norabidea aldatu zuten. Klase estratifikazioaren eredia sailkapen-kodigo nagusitzat erabiltzen zenean, jeneroaren diferentziak gizarteko klasifikapen prozesuaren ulerkuntzarako alabarrezkoa bihurtu zuten. Ulerkuntza berri honek, partikularzki marxismo klasikoaren teoria eta praktika nagusien gaitzpena inplikatzeko zuten: Teoriaz klase zapalketan oinarritzen zenez, marxismoak ezin zuten emakumeen baldintzapen berezia azaldu; eta, beraz, baldintzapen horien eraldatzeko, ezin zuten praktikan laguntza adierazkorrik eskeini.

Honez gain, antolakuntza eta ekintza politikoaren mailan ere, ohizko ezkerren molde eratzailerik gogorregiak ezeztatu ziren; horrela, areago, eremu pribatuaren baieztapena goraiatu. Baina Pertsonala politikoa da! sloganean isladatzen denez, eremu pribatuaren goraiapenak ez zuten eremu publiko eta sozialetik alde egiterik baimentzen. Alderantziz, feminismoaren egitarau kritiko eta interbentzio eraldatzaile askotatik itxuratu diren emakumeen eskakizunek, ekinaren ekinaz eta etengabeki erreklamatu dituzte nolabaiteko agentetasun baikorraren teoriak gizartearen mailan.

Feminismoaren interbentzioarekin, bestalde, jakintza, kultura eta artearen errepresentazioak ezin daitezke, gehiago, politikoki neutralizat eta teorikoki ihardun errugabekotzat ulertu. Ekoizpen eta emaitza kulturalak giza-testuinguruaren eta ideologiaren (edo balio sistema bizi zenbaiten) barnean kokaturik daude.

Horregatik, kultura eta artearen arloei loturiko gatazkak oso garrantzitsuak izan dira beti emakume mugimenduarendako. Arazo funtsezkoenatarikoa, hemen, emakumeen irudigintzarekin zerikusi nabaria duten ikusmenezko eta idatzitako errepresentazioekin sortzen da; hau da, bai literaturaren mailan eta baita, batez ere, komunikabideetan abantailtzen diren 'emakumeen ikonografiekin'.

Zer esanik ez, kultura dominatzaileak abantailtzen dituen 'errepresentazioaren gehiegikeriak' aztertzerakoan, feminismoaren barnean eman (eta ematen) diren eztabaidetan ikuspuntu desberdin asko nabaritzen da. Nahiz eta, adostasun zehatzak lortzea ezinezkoa izanik ere-, zenbait eritzi biltor eta bateratzaileak sortzea posible baiten. Hasteko, errepresentazioaren eremu kultural desberdinetan ezer betidaniko eta unibertsalik ez dagoenaren ikusmena onartzen da: Gizonezkoek emakumeak nola begiratzen dituzten, emakumeek euren burua nola ikusten duten, komunikabideek emakumeak nola iruditzen dituzten, edertasun fisikoaren erizpideak nola erabakitzen diren eta abar, denak aldagarriak dira; denak historikoki baldinpetuak dauden errepresentazio kulturalak osatzen dituzte.

Testuinguru honetan, adierazpen feministek aurreratzen dituzten kultura eta arteari buruzko ikusmen estetikoek emakumeen errepresentazio nagusi eta dominatzaileak okertzat ukatzen dituzte. Baina ukamen hutsean gelditu beharrean, feminismoaren politika kulturala emakumeen autoerrepresentazio

eta erakuspen egokiagoen sorkuntzan oinarritzen da. Eta identitatearen politika osagarritzakoarekin arituz, emakumeen arteko diferentziak eta desberdintasunak adierazi behar diren premia azpimarratzen da. Zeren eta...

Feminista guziak emakumeen subordinazioa ulertzea eta emakumeak emantzipatzea beharrezkoak direlarekin adoz badaude ere, subordinazio horren zergatiak buruz eta emantzipazioa nola lortzeko buruz ez (bait) daude ados. (P. Abbot, C.Wallace, 1993:212) Azalpen honetan, batez ere azken hiru edo lau hamarkadetan feminismo(ar)en zeregin ezin beste garrantzitsua hartzen da gai bultzatzaile eta eragingarritzat. Asmo nagusia, hemen, nazioarteko emakume mugimendu globalaren, (hau da, feminismoaren historian emandako 'bigarren olatu'-aren) inguruan hedatu diren ideien eta ekiteen kontakizun gertaberri, eztabaidatu eta aldakorak erakustea izango da.

Azter-apainketaren mailan, Teresa de Lauretis (1989) irakasle eta ekintzaile feministaren eskutik dator, batez ere, idazlanaren bizkarrezur edo hari gidatzaile nagusia. Teresa de Lauretis arabera, feminismoaren arazoari erantzuna aurkitzeko, emakume mugimendu desberdinen historia berezietan arakatu behar da. Horrela, feminismoak historikoki eta leku desberdinetan aurreratu dituen jarrera, ekite eta diskurtso kritikoak agertu behar dira; zeinak patriarkagoan erroturik dagoen 'kanpo'-ko testuinguru zabalaren aurka zuzendu baitiren. Era berean, halere, eta hain garrantzitsuagoki, feminismoaren jokabide oposizionalak direla medio bere 'barne'-an sortu diren eztabaida eta zatiketak ere arakatu egin behar dira.

Kanpoko testuinguru zabalaren aurka aritzerakoan, hau da, emakumeen aurkako giza-hertsapen materialak edo diskurtso eta errepresentazio dominatzaileak salatzerakoan, feminismoak bere kritika eta estrategia politikoak aurreratu ditu. Historikoki, gainera, emakumeen berdintasunaren aldeko eskakizun, aldarrikapen eta beste hainbat esanahi eta emaitza aberatsak, borrokaren tradizio luze batean kokatzen dira.

Izanez ere, feminismoaren 'lehen olatua' deritzana oso mugimendu zabala eta anikoitza izan zen. Rosalind Delmerren (op.cit) arabera, Mary Wollstonecraften "Emakume Eskubideen Aldarrikapena" (1792) idatzi aurretik hasi zen. Gero, XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran sortutako feminismo militante eta ekintzaileekin jarraitu zuen. Eta, azkenik, Simone de Beauvoirren "Bigarren sexua" (1949) liburu garrantzitsuarekin amaitu zen<sup>[1]</sup>.

Feminismoaren lehen olatuak jaso zituen ardurak nagusienak emakumeen eskubide indibidual eta kolektiboen inguruan ardaztuak zeuden. Mugimenduaren interes sozial eta politikoak emakumeen autodeterminazioaren bidetik zuzendu ziren: Sufragismoaren alde arituz, berdintasun ekonomikoaren eskakizunarekin batera lanerako eta irakaskintzarako aukera berdinak aldarrikatuz, eta abar.

Historiaren ikuspuntutik, mugimendu feministak ezagutu zuen momentu baxuena Simone de Beauvoirrek bere liburu famatua idatzi zuen garaian izan zela onartzen da. Hain zuzen ere, 1940. urtetik aurrera eztabaida teoriko eta ekintza aldarrikatzaile gutxi sortu zen emakumeen artean. Baina geroztik, eta, batez ere, 1960. hamarkada erditik honantz, feminismoak izan dituen momentu emankorrenak ezagutuko zituen.

Feminismoaren ohizko eskakizun, gai eta politika orokorrenak konpartituz ere, emakume mugimenduaren bigarren olatuak aldaketa nabari batzuk operatzen ditu bere jarrera, ekite eta diskurtso desberdinetan. Orohar, emakumeendako eskubide berdinak (eremu legalean, hezkuntzan, lantokian eta abar) eskatuz gain, identitatea eta subjektibitatea definitzeko, sexualitatearen, jeneroaren, arrazaren eta baita klasearen garrantzia ere gorai patuko dira besteak beste. Eta, beraz, garrantzi nabarmenenak legearekiko berdintasunean baino identitateen desberdintasunean ezarriko dira.

Kanpoko baldintzapean bortxatzaileen aurka zuzendutako eskakizun, aldarrikapen eta borroka desberdinen arabera, gainera, zenbait talde nagusi eratuko dira nazioarteko emakumeen mugimendu globalean: Feminismo liberala, erradikala, marxista eta/edo sozialista, lesbianen mugimendua, kolorezko emakumen mugimendua... Eta, ondorioz, gaurrengungo feminismoaren barnean ematen diren jarrera, ekite eta diskurtsoen prozesuek makina bat eztabaida, zatiketa eta baita polarizazio gotorrak ere sortuko dituzte.

Teresa de Lauretis tesira berriz itzuliz, zatiketa hauek, bereziki hiru arlo nagusietan nabaritu dira. Lehenbiziko polarizazio nabarmenena teoriaren alde eta aurkako eztabaida zorrotz eta ikuspuntu

bilduezinetan gauzatu ziren. Eztabaida hauek, feminismo intelektuala eta ekintzaileari buruzko oposaketa zehaztu zuten, batez ere, 70. hamarrurtealdiaren zehar. Eta, geroztik, halako anti-intelektualismo oinarritzkoa legitimatu da emakume mugimenduaren zenbait egoitzetan.

80. hamarkadarako, beste bi ikuspuntu nagusi gogorki oposatzen hasiak ziren feminismoaren barnean. Barne-gatazka hau, 'sexu-guda'-tzat ezagutarazi zen eta, bereziki, pornografiari buruzko eztabaida garrantzetan konkretatu zen. Are eta gehiago, eztabaida hauek ondorio sakonak izan dute feminitatearen hainbat ulermen kultural eta politikoak zehazterakoan. Hain zuzen ere, anti-pornografia taldeek eraiki zuten emetasunaren sujetu gehiegiz determinatu eta biktimizatuaren aurka, ekintzaile feminista asko altxatu da geroztik.

Sexu-guda hauekin batera elkarloturik, beste eztabaida funtsezkoa nagusitu zen garai horretan. Zehazkiago, barne-kritika berria, hemen, feminismoaren historia guztiz emakume zuriengatik eraikia eta menperatua zegoela izango zen. Eta testuinguru horretan, arrazarekin zerikusi nabaria zuten arazoak eta kolorezko emakumeen posizioak (emakume beltzenak, indiarrenak eta abar) baztertuak zeudela salatu zen. Ikuspuntu berri hauen arabera, jeneroaren arazoa baztertu gabe, arrazari loturiko gaiek garrantzi haundiagoa hartu behar zuten nazioarteko emakumeen mugimenduan.

## FEMINISMOAREN ESTRATEGIA NAGUSIAK

Arestian azaldutako emakume mugimenduaren ekite eta diskurtso desberdinen joera nagusienak azaltzeko, Malcolm Barnard (1993) soziologo eta filosofo britaniarrak beste sailkapen lagungarri bat eskaintzen du. Sailkapen honek, emakumeen mugimenduan sarritan tartenahasi diren jarrera desberdin nagusi batzuk bereizten laguntzen du.

Derridak aurreratutako dekonstruzioaren premisak besarkatzen duen Barnarden arabera, feminismoaren estrategia garrantzitsuenak bi modukoak dira: **Alderantzaileak** (edo **errebertsalistak**) eta **ukazaleak** (edo **errefusalistak**). Bi estrategia hauek beste bi joeretan zatikatzen dira.

Nabargarria denez, estrategia alderantzailearen bi joerak, de Lauretisen kanpoko testuinguru zabalaren aurka (hertsapen sozialak, legegintza, aparatu ideologikoak, diskurtso eta errepresentazio dominatzaileak,) kritika feministatzat ulertzen duenarekin egokitzen dira. Eta, orokorrean, emakume mugimenduaren tradizioan sexuen arteko eskubide-berdintasunaren lorpenarekin zerikusi duten esanahi, asmo eta ekiteekin parekatu daitezke.

Barnarden sailkapena laburtuz (Ibid:24-28), feminismoaren lehen estrategia alderantzaileak, ar/emeen arteko balio-hierarkiak betetzen dituzten lekuneak alderantztea edo ber intzultzea eskatzen du. Asmoa, hemen, azpiko edo ordezkoko balio fememinoak (bizi sortzailetasuna edo ugaltasuna, hazkuntza, arduratasuna...) gaineko balio maskulinoak bezainbat baliagarriak bilakaeraztera da. Ikusmen honek gizonezko eta emakumezkoen arteko aginte harremanen aldakuntza inplikatzeko du; zeinak, areago, emetasunean oinarrituriko (edo ardazturiko) balio sistema bat sortzeko aukera ere baitakarren.

Feminismoaren bigarren estrategia alderantzailea, balioen eremuarekin baino emakumeen eskakizun politiko zehatzen inguruan ardazten da. Hau da, diskriminazioaren aurkako ekintzen bidez, eskubide sozialen (ad. lan berdinari soldata berdina), eskubide legalen (eskubide zibil berdina) eta eskubide politikoen (instituzioetan maila berdineko agintea) lortzea da, hemen, helburu nagusia.

Feminismoaren bi estrategia errebertsalista hauen bidez, emakumezkoak gizonezkoak diren gauza guztiak direla erakusten saiatzen dira. Ohiz ezeztatu zaizkien aginte harreman eta posizioetan sartzea eskatzen dute. Eta, behar izanez gero, tradizioz emakumezkoetat kontutan hartu izan diren atributuen gaitsezpena aldarrikatzen da.

Feminismoaren estrategia ukazaleak aurkezterakoan, Barnardek, de Lauretisek aipatzen dituen barne eztabaida pare baten kontua ematen du. Hain zuzen ere, lehenbiziko estrategia ukazaleak, emakume mugimenduan eman zen teoria/praktika barne zatiketaren kasua adierazten du. Eta, bigarrenak, feminismo 'separatista'-ren politika oinarritzen du; zeinak, (datorren atalean azalduko den bezala,) eremu maskulinoatik at kanporatzen saiatzen baiten. Feminismoaren joera separatistak arren antolakuntza erasotzailea errefusatu eta oposatzen du. Asmo nagusia, bakarrik emeez osaturiko eremu alternatiboa eraikitzea eta eratzea da.

Lehenbiziko joera ukazalera berriz bueltatuz, orain, ikusmen honek jakintza eta teoriaren diskurtso guziak errefusatzearen itxura hartzen du batik bat. Esan bezala, bigarren emakume mugimenduaren hasieran, feminismo intelektuala ala ekintzaileari buruzko eztabaidek, teoria eta praktikaren arteko oposaketa zehaztu zuten. Ekite politiko eta kultural gehienak teoriaren alde ala aurkako jarretetan polarizatu ziren.

Aurkakoen argudio ikusgarriena, hizkuntza betidanik maskulinoa izan delaren ikusmenean laburtu daiteke. Mintzaera artikulatua falozentrikoa da. Teoriaren diskurtsoek eta/edo jakintzaren hizkuntzek, emakumeak moldarazteko eta emetasunaren zentzua ezabatzeko erabiltzen diren ar-nagusitasunaren beste tankera sail bat osatzen dute.

Teoria sistematikoa guztiz artzat zapuztearen ondorioa, noski, ikusmen ukazale hau anti-intelektualismo kaxkarrarenarekin nahastuko zela izan zen. Izanez ere, orokorki, hizkuntzaren jario 'naturala' gorai patuz, hizkuntza teorikoaren balioa 'artifizial'-tzat ukatzeko ohiz erabiltzen dena.

Hala eta guztiz, hizkuntzaren kritika feministak (teoria eta metodo unibertsalen kritikak barnean daudelarik) hizkuntza, pentsamendua eta errealtatearen arteko harremanak inolaz ere neutralak ez direla ulertzeko lagungarriak dira. Sarritan oso aproposak diren bezala, halaber, hizkuntzaren bidez zehazten den ar-nagusitasunaren gorengotasuna erakusterakoan; ez bakarrik hiztegiaren erabileran baizik eta hizkuntzaren egitura sakonetan eta sintasian ere<sup>[2]</sup>.

Malcon Barnarden sailkapenera bueltatuz, dena den, honek bere ikusmen kritiko propioak aurreratzen ditu feminismoaren estrategia nagusizat ulertzen dituenak azaldu eta errepasatu ondoren. Eta, esan bezala, dekonstruzioaren printzipioak erabiltzen ditu azter-tresna kritikotzak. Dekonstruzioak feminismoaren estrategia alderantzailetik eta ukazaletik sortzen diren akats teoriko eta praktikoak gainditzen dituela dio.

Barnardendako, (Ibid: 28-29) are eta gehiago, emakume mugimenduaren joera alderantzaile eta ukazaleek feminismoaren alde 'arrunta' osatzen dute. Eta feminismoaren estrategia 'arrunt' hauek ez dituzte patriarkagoa benetan desafiatzen. Alderantziz, feminismoaren bi joera hauekin, patriarkagoa sostengatzerakoan "gaizkideak" diren **falozentzismoa** eta **logozentrismoa** daudenetan jarraitzen dute. Hau da, falozentzismoa eta logozentrismoaren inguruan artikulaturik dagoen ar-nagusitasunaren "sistema edo ekonomia zentratua" ez da aldatzen.

Eta ez bakarrik hori. Era berean, feminismo 'arrunt'-aren estrategia eta alternatibek aurka egitea nahi duten sistema dominatzaile beraren osagaiak birsortu eta/edo bokoizten dituzte. Emakume mugimenduaren joera desberdin hauek, arreta maskulinoz osaturiko eremuaren barnean mantentzen dira. Errebertsalismoan sustraitzen diren bi jokabideek, eginbehar bat dute elkarren artean: Hierarkian goiko lekune arrari abantaila emanez, abantail horren iraulketa edo gainazpiraketa zuzenean oinarritzen dute euren jarrera, ekite eta diskurtso alderantzaile eta antitetikoak. Feminismoaren ukatze mota biak, bestalde, borrokatzen duten sistemaren beste erdia oposatu edo gaitsezten dute. Baina, horrelaxe, edo horregatik, esanez eta ekitez errefusaten duten diskurtso maskulinoaren barnean irentsiak daude jadanik.

Laburtuz bada, feminismo 'arrunt'-aren bi joera nagusietan, diferentzia eta oposaketa femerinoak, balio maskulinoz osaturiko ardatzaren (edo erdi/zentruaren) inguruan antolatzen dira. Edo, beste modu batera esateko, arreta maskulinoek egokia eta zuzena zer denaren arabera ardatzen dira.

Bi joera hauen emaitzak gaintuz, Barnardek (Ibid: 30-33) hirugarren aukera bat aurkitzen du feminismoren barnean; zeina, gizonezkoen arreta eta arazoaren oposaketatik ez datozen balio eta identitateak aurkitzen saiatzen baiten. Feminismo dekonstrutzaile 'ez-arrunt' hau, hain zuzen, **falogozentrismoa**-ren asmoetik at kokatzen da. Falogozentrismoak, horrela, ezin du, ez dekonstruzioaren praktika kritikoa bereganatu ezta kaltegabea bilakatu ere. Dekonstruzioan oinarrituriko praktika kritikoa bere esanahiak, bere balioen ekoizpenak eta bere ezeztapenaren lekuak, arreta maskulinoak zuzentzat eta egokitzat ulertzen duenaretik kanpo kokatzen ditu.

Dekonstruzioa, zentzu honetan, mendebaldeko pentsamenduaren sistema zentratuak (eta hauen gibelean indartzen diren egitura politiko eta giza-instituzio bortxatzaileak) desafiatzeko ahalmengarria dela esatea zilegia da<sup>[3]</sup>. Galdera, ordea, feminismoaren posibilitatea areagotzeko, dekonstruzioaren teknikak baliagarriak diren ala ez litzateke. Zeren eta, orohar, feminismo 'arruntak' dekonstruzioak

sufritzen duen errealismo-ezaren eta pragmatismo mugatuaren kontua ematen baitu, batez ere, gizartearekiko ekintza politiko eraldatzailearen maila konkretuan.

Jakina denez, gainera, dekonstruzioak identitate politikoaren nozioa bere izaera diskurtsibora murrizten du. Dekonstruzioak, munduaren esperientzia eta jakintza, bakarrik hizkuntzaren operazio diskurtsiboen bidez ezagutarazi daitezke adierazten du. "Jarrera textual" hau definitzerakoan, halere, Edward Saidek (1978, 1991:93) zera dio "gizakien akats arrunt" bateri buruz, alegia "textu baten autoritate eskematikoa gizakiekin topaketa zuzenak (sortzen dituzten) desorientazioak baino nahiago dutela dirudiela".

'Errealitatea', zer esanik ez, bakarrik hizkuntzaren bitartez jaso eta adierazi daitezke. Hori ukaezina da. Baina errepresentazioaren balioari buruzko onarmen, honetatik ezin daitezke ondoretu balio bakarria textuetan dagoela. Zeren eta ikusmen honek gizartea ezeztatzeko lizentzia bat bezala funtzionatuko bailuke. Saidek (Ibid) jarraitzen duen bezala: "Norbaitek leoiak ankerrak direlaren baieztapena liburu baten irakurtzen badu, eta gero leoi anker batekin topatzen bada (sinplifikatzen ari naiz, noski) daitekena zera da, autore horren liburu gehiago irakurtzera, eta sinisterra bultzatua egongo dela".

Feminismoak errepresentazioaren gehiegikeriak (teoriarenak barne) salatu eta ukatzerakoan antzerako zerbait adierazi nahi du. Feminismoak hor kanpoan zuzenki topatu eta aurpegiratu behar dituen benetazko leoiak, hau da, gizartean ematen diren zatiketa eta desberdintasun politiko, sozial eta ekonomiko ankerrak, prozesu material eta 'ez-textualen' bidez gauzatzen direla. Eta, gero gure kontua dela idazten direnak egiak diren ala ez sinisterra eta errepresentatzen direnak baliagarriak diren ala ez pentsatzea. Azken finez, 'Leoi' kontzeptuak berak ez du ezer irensten.

Hau hola izanik, Teresa de Lauretis oso kritikoa agertzen da dekonstruzioarekin. De Lauretis (1987) arabera, Derridak gauza asko die zor emakumeei. 'Emakume' kontzeptuak berak, mendebaleko egitura falogozentrikoaren kritika etengabea inspiratu du dekonstruzioaren lanetan. Baina denbora berean, 'emakumeak' Derridaren diskurtso teorikorako tresna soilak bilakatu dira. Diskurtsoen ereikuntzarako aitzaki hutsak bihurtu dira hain zuzen ere.

## **FEMINISMOAREN BESTE ZENBAIT EZTABAIDA**

Malcolm Barnardek identifikatzen dituen bi estrategia alderantzaile edo errebertsalistak, gutxi gorabehera feminismo 'klasiko'-aren, edo 'nagusi'-aren, edo, orokorrean, 'liberal'-aren esanahi, eskakizun, borroka eta emaitza nahiko ezagunen, eta maila haundi batean, onartuen kontua ematen dute. Lehen estrategia ukazaleak, bestalde, gizartearen eraldakuntza lortzeko teoriaren baliogarratasuna zalantzan ezartzen du. Eta feminismoaren zeregina soilik praktikaren ildotik bideratu nahian, emakume mugimenduaren zatiketa nabaria sortarazten du. Feminismoaren bigarren zatiketa garrantzitsua feminismo 'separatista'-ren jarrera, ekite eta diskurtsoen bidez gauzatzen da. Teresa de Lauretis arabera, gainera, zatiketa honek teoria eta praktikaren arteko oposaketa ber itxuratu zuen. Baina, orain, identifikapen lesbianarra eta heterosexuala bata bestaren aurka ezarri. Adrienne Rich (1980) feminista lesbiana, poetisa eta filosofari amerikarrendako, 'esperientzia lesbiarrak' identitate lesbiarraren osagarri bereziki sexuala barnean sartzen du noski. Era berean, halere, emakume guzien alde bat osatu dezakela baieztatzen du; ez alabarrez fisikoki burutzen dena baizik eta, amatasunaren esperientzia bezala, emozionalki bizitzen dena.

Zentzu honetan, emakumeen esperientzia, historia, kultura eta balioak patriarkagoaren kultura dominatzaile eta heterosexualetik desberdindu behar dira. Heterosexualitatea, bestalde, eraikuntza bat da, hau da, historiaren zehar gizarteak emakumeen aurka inposatu izan duen sistema bat osatzen du; zeinak, are eta gehiago, lesbianen esperientzia ikustezina eta 'abnormala' bilakatzen baituen.

Richen arabera, ordea, egoera hau mantentzerakoan lagungarria agertzen den neurrian, feminismoak ere bere erantzunbeharra du. Feminismoaren gai honi buruzko jasokunde orokorra zera izan da, alegia 'emakume gehienak jaiotzez heterosexuak direla'. Ondorioz, feminismo nagusiaren barnetik sortu diren zenbait azterketa, ikerlan eta teoria, lesbianismoaren ikusezintasuna (edo inbisibilitatea) eta marginalizazioa areagotzen lagundu dute. Eta, horrela, emakumeen ahalmentze, eskubidetze eta askapen prozesuaren aurka kokatu dira inplizitoki.

Testuinguru hau kontuan hartuz, feminismo separatistaren ikusmen gogorrenetarikoak heterosexualitatea bera atzerakoitzat ulertzeraino heldu ziren; izanez ere emakume heterosexualak ere patriarkagoaren kolaboratzailetzat hatzemanen. Baina, Eve Kosofsky Sedgwick (1990) idazle eta ekintzale lesbiarraren<sup>[4]</sup> errepasu historikoa laburtuz, ikusmen zalatzaile honen logika areago bultzatu zen. Eta, hain zuzen ere, feminismoaren barnean baino, lesbianen eta homosexualen artean suertatu zen polarizazioa askoz ere zorrotzagoa izan zen, nahiko paradoxikoki.

Kosofsky Sedgwicken hitzetan, emakume mugimenduaren barnean lekutu zen proiektu feminista-separatistak, ikusmolde adierazgarri prestatuena ekarri zuen lesbianentzat. Ikusmolde honen arabera, homosexualen eta lesbianen esperientzia eta identitateen artean ez zegoen elkartasunerako oinarri baliagarri funtsezkorik. Alderantziz, emakumeen arteko maitasuna eta gizonen arteko maitasuna, jeneru sailkapenaren puntako muturretan zeuden zehatz-mehatz.

Horrela, emakumezkoen arteko maitasuna emeagotzat ulertu zen. Eta, ondorioz, gizonezkoen artekoak, jenero mugak gurutzatzen zituzten harreman heterosexualenak baino arragotzat ikusi ziren. Sexualitatearen ardatza bada, jeneroaren ardatzarekin hedakidetu zen zehazki. Sexualitatea esentzia goimailakoaren adierazpidea bilakatu zen. Eslogan ezagun batek aldarrikatzen zuenez 'Feminismoa da teoria, lesbianismoa praktika'<sup>[5]</sup>; eta, analogiaz, gizonen arteko praktika homoerotikoa ar-nagusitasunaren teorian zuzenki oinarrituta zegoela alegatzea zilegia bilakatu zen.

Beraz, teoriaren mailan, sexu berdinerara zuzendutako desira, jenero bakoitzaren erdigune guztiz definitzailetzat hartu zen. Baina Kosofsky Sedgwicken azpimarratuko duenez, homosexualen eta lesbianen desira eta identitateen bata bestearen aurkako ulermen hauek kontrajarriz, zenbait joera desberdin agertu zen laister asko. Eta, praktikan, joera berri hauek lesbianen eta homosexualen historia, kultura, identitate, politika eta xede garrantzitsuenak konpartigarriak eta, kasu askotan, bateragarriak zirelaren ikusmen berbiztu bateruntz bideratu ziren<sup>[6]</sup>.

Hain zuzen ere, elkartsuna eskatzen zuten ikusmen hauek, batez ere, eta halabeharrez, pornografiari buruz sortutako 'sexu-guda'-tan isladatuko ziren. Zeren eta homosexualen eta lesbianen arteko jeneru-guda berezia aldameneratuz, askatasun sexualaren aldeko elkargune estuak eratzea behartuak aurkitu baitziren.

## **FEMINISMOAREN BARNEKO SEXU-GUDAK**

Feminismoaren barnean eman zen, eta oraindik ere, ematen den eztabaida lehiatsuenak pornografiaren inguruan ardatzen da. Diskurtsoaren mailan, sexuaren aldeko (hemendik aurrera, 'pro-sexu') mugimenduaren eta pornografiaren aurkako (hemendik aurrera, 'anti-porno') feminismoaren arteko gatazkek, sexu/jenero kontzeptuen bereizkuntza ber itxuratu zuten<sup>[7]</sup>.

Teresa de Luretisek dion bezala, bietatik bat gertatu zen: Edo, politikoki eta analitikoki bereizkuntza erabili gabe, sexua (biologikoa) eta jeneroa (sozio-kulturala) bateratu ziren. Edo, bestela, bata bestearengandik banandu ziren; sexualitatea eta jeneroaren mugak gurutzatzen zituzten konbinapen guzaien ahalmenak (transsexualismoa, trabestismoa, bisexualismoa eta abar) legitimatzeko.

Sexualitatea eta jeneroaren arteko bereiztasuna azpimarratu gabe, mugimendu feministaren gehiengoak pornografiaren aurka kokatu zen. Eztabaida orokorraren mami eta edukinei buruz, anti-porno posizioak, oraindik ere nabarmena den nagusitasuna lortu zuen. Laura Kipnis (1992:373-4) bideogile eta kritikalarik iparramerikarraren arabera, gainera, gaurregungo feminismoan eta ezkerrean kokatzen diren pornografiari loturiko jarrera eta diskurtsoak, edukin eta erreferentzia ukazale horiek osatzen dituzten mugarri tinkoki errotuekin topo egiten dute.

Horrela, anti-porno mugimenduaren esanahi ukakor eta ezkor indartsuen aurka kokatzen diren pro-sexu feministen erreparatu hain indartsuagoak, euren egitarau propioak antolatzeke ez dira inoiz gauza izan; hau da, oposatzen dituzten pornografiaren aurkako edukinei erantzuna emanez burutu dira beti.

Argumentu anti-pornoekin hasiz gero, hauek ikuspuntu oso desberdinak osatzen dituztela, eta, horregatik, errezki bateragarriak ez direla esan behar da lehenik. Halere, Andrew Ross (1989) ingeles irakasle eta kultur-kritikalarik iparramerikar gizonezkoak dioenez, pornografiaren aurka eratzten diren mugarri kritikoen muin filosofikoa, ondorengo printzipio edo arau nagusietan datza: Patriarkagoaren

zapalkuntza sistematikoa eta barnekorra da. Honezaz gainera, unibertsalki eta transhistorikoki erabilia izan da.

Beraz, pornografiaren aurka kokatu den emakume mugimenduaren gehiengoak, gizonak aginteari unibertsalki eutsi diotela baieztatzen du. Are eta gehiago, aginte hori arlo guzietan mantentzen dela azpimarratuko da. Andrea Dworkin (1981) feminista erradikal aintzindarienekoak esaten duen bezala: Pornografiaren bitartez eta (laguntza)-ekin adierazten den aginte arra, joera diskretu nahiz gurutzelkartu eta azpindartzailetan bereizten da: norberaren agintea, besteen gaineko eta aurkako aginte fisikoa, terrorearen agintea, izendatzearen agintea, jabetzaren agintea, diruaren agintea, eta sexuaren agintea. Aginte arraren joera hauek intrisekoak dira bai pornografiaren substantzian eta baita produkzioan ere; eta pornografiaren eginbideak eta baliakizunak aginte arraren eginbideak eta baliakizunak dira.

Ikusmen anti-pornoaren arabera, aginte arrak emakumeen autonomia erasotzen du zuzenki. Jitezko eme-askatasunaren erresuma indarrez hartu eta usurpatzen du. Pornografiaren aurkako ikusmen nagusien arabera, agintea, manipulazioa eta biktimizazioa opari maskulinoak dira; babestu eta mantendu behar den askatasuna eremu femeninoan dago.

Arestian esandakoaren arabera bada, pornografia guztiz ar-menperaketaren diskurtsotzat teorizatu eta definitzen da. Pornografia jenero zapalkuntzaren adibide erabakitzaileena da. Pornografiaren atseginak, bestalde, ihardun arraren esparruan zokoratzen dira soilik. Eta, horrela, pornografiaren atsegin arrak, zuzenki misoginiarekin bateratuz gain, bortxaketa fisikoaren jatorri zuzentzat ulertzen dira sarri askotan; (Pornografia da teoria, biolazioa praktika!)

Baina zuzenki (linealki) eta zuzentzat (direktutzat) ez du derrigorrez esanahi justuki edo arrazoiez. Zeren eta Kipnis (op.cit.) eta Rossek (op.cit.), bakoitzak bere tokian eta modura laburtzen duten bezala, argudio anti-pornoaren aurka, pro-sexu feministek (eta, jadanik esan bezala, bestelako zenbaitek ere) erantzun kritiko garrantzitsuak nabarmenduko baitzituzten.

Besteak beste, pornografiaren aurkako mugimenduarekiko gaitzezipen nagusienak ondorego ildotik bideratu dira feminismoaren barne-eztabaidetan: Mugimendu anti-pornoaren lehen akatsa, erreztasun unibertsalizatzaile batean erortzen dela litzateke; hau da, feminismo anti-pornoak emakume guzien alde eta partez hitzegiten du. Pratibha Parmar (1988:119) irakasle feministak dioenez, pornografiari buruzko eztabaiden ezaugarri bat, aginte arrari eta menderaketa sexualari buruz generalizazio unibersalak egitea izan da.

Ondorioz, feminismo anti-pornoaren diferentzia sexualarekiko ikusbideak esentzialistak eta erreduktzionistak dira. Pro-sexu mugimenduaren salaketan arabera, alderantziz, jeneroan oinarrituriko aginte harremanak ez daude kausa-efektu kate zuzen eta aldaezin batean betirako finkatuak. Pornografiaren aurkako feministek besarkatzen duten patriarkagoaren logika ahistoriko erreza onartezina da.

Beste salaketa nagusia moralismoarena izango zen. Pro-sexu argudioen arabera, pornografiaren gaitzezipen asko, soilik printzipioetan sostengaturiko balioztapen moralista hutsetan sustraitzen zen. Eta printzipio moralizatzaileak inplikazio politiko zuzenak erakusten zituzten. Zeren eta, inplizitoki behintzat, gogorki irabazitako askatasun sexualen abrogazioa inplikitzen baitzen; horrela, are eta gehiago, mugimendu anti-pornoaren eta indar atzerakoi zaharminduen arteko aliantza tazituak bultzatuz.

Azken arazo politiko honek eztabaida benetan gotorrak sortuko zituen. Adibidez, pro-sexu teorigile aipagarrezkoa<sup>[8]</sup> den Gayle Rubinek (1984), ez zituen bere hitzak larregi bikainduko anti-porno mugimenduaren jarrera moralista, ekite atzerakoi eta diskurtso erreduktzionista zenbait erabat erasotzerako orduan. Rubinen lehen kezka eta ardurak, gutxiengo sexualen eskubideekin lorutik daude bereziki. Gutxiengo sexualak perbertsutzat eta, sarritan, pornografia beraren osagaitzat sailkatzen direla salatzen du. Eta, testuinguru honetan, pornografiaren aurka aritzen duten taldeetatik proposatzen diren erreformak, gutxiengo sexualen eskubideak erasotzearen itxura guztiak hartzen dituzte.

Hau hola izanik, Rubinen hurrengo azterbidezko urratsa azkoz ere drastikoagoa da. Pornografiaren aurkako erreferentziak oposatuz gain, feminismoaren baliogarritasun politikoa zalantzan ezartzen du hain zuzen ere. Feminismoa, orohar, jenero zapalkuntzaren politika eta diskurtso teorikoan oinarritzen da. Baina Rubinendako, honek ez du esan nahi feminismoak, sexualitateari buruzko azterketa eta



pentsamolde oproposena osatzen duenik; marxismoak, halaber, giza-klasetan oinarriturik ez dauden desberdintasunei buruzko azalpen baliagarriak askotan eman ezin dituen bezala.

Klasearen nozioa dela eta, bestalde, edonolako giza-ikusmen eta gaizerrenda edo egitarau politiko aurrerakoietan bere tokia aurkitu beharko luke. Baina Rubinen arabera, feminismoan ez gizartean klasearen nozioak dituen eragin sakonei buruzko teoriarik. Feminismoak, eta, partikularzki, pornografiaren aurkako mugimenduak, klase-teoriak aldamenatu dituzte ohiz<sup>[9]</sup>. Pornografiaren industrian lan egiten dutenen klase estratifikazioak eta errentabilitate ekonomikoaren nolakotasun azalezkoak alde guztietatik deskribatu dira. Baina deskribapen horiek, klase sozialen teorian sakontzeko baino misoginiaren teoria totaliza-tzaileak nabarmaentzeko asmoarekin burutu dira gehienbat.

Berriz Laura Kipnisek (Ibid) ezinbeste adierazgarriki esaten duenarekin jarraituz baina, misoginiaren gaia atzematerakoan ere proportzioak galtzen dira feminismo anti-pornoaren eritzietan. Misoginiaren zabalera monumentala dela dio Kipnisek; hain da galanta, gainera, non tragikoa den moduan arrunta eta hutsala bilakatzen dela eguneroko omnipresentzian. Baina prezisamente horregatik, misoginia eta pornografia zuzenki bateratzearen ahaleginak ez du zentzu haundirik. Pornografiaren munduak osatzen duen gehiegizko fantasia, atsegin eta proiektio gehitueko azalean, misoginia nabariago eta nabarmenago agertzen dela baieztatzea zilegia da agian. Baina honek misoginiaren itxurapen lokalizatu huts bezainbat tipila osatzen du soilik.

---

Behin honeraino helduz gero, eta feminismoaren barneko 'sexu-guden' inguruan emandako eztabaiden edukin garrantzitsu zenbait aurkeztu ondoren, eztabaida hauen momentu gorenekoa bere koordinatu historikoa kokatzea falta da oraindik. Horrela, beharbada, pornografiaren aurka hedatutako jarrerak eta arrazoiak hobeki somatzeko edo.

Emakume mugimenduaren gehiengoak (batez ere 70. eta 80. hamarkaden zehar) pornografiaren aurka atxeki bazuen, feminismoaren batasun zentzua inoiz baino gehiago zalantzan zegoenean gertatu zen. Patriarkagoaren kritika abstraktuak guztiz bazterturik gabe, pornografiaren natura nabariak axola eta borroka desberdin askoren konbergentziarako puntu ikusgarria ekarri zuen.

Pornografia gizonezkoek definituriko sexualitatetzat ikusi zen. Emakumeen degradazio, esplotazio eta kontrola zergutzatzen orduan, hau da, gizonek emakumeen aurkako agintea mantentzerakoan, pornografiak zeregin nagusia jokatzen zuen. Beste edozein gauza baino gehiago, pornografia zen emakumeen 'objektibizazioa' eta 'negazioa' zekarrena; emakumeekiko gorrotoa adierazten zuena; emakumeen zapalkuntza legitimatzen zuena; eta emakumeen aurkako biolentzia iraunerazten zuena.

Laburtuz bada, pornografia emakumeen aurka erabilitako ar agintearen baliabidetzat eta indarkeriaren normalizapenerako leku lehenbizikotzat ikusi zen. Honezaz gainera, industria pornografikoaren gorakada feminismoaren funtsezko eskakizunen aurkako erreakzio zuzentzat ulertu zen era berean. Arrazoi eta egoera horiegatik, pornografiarena arazo nagusitzat isolatu zen feminismoaren ekite batuak antolatzerakoan, eta ahots bateratu berri baten mobilizapena astintzeko aukera ekarri zuen emakume mugimenduaren barnean.

Nahiz ete, hemen ere, batasun hori itxurazkoa izango baitzen bakarrik. Zeren eta Teresa de Lauretisen lanari berriz laburki hurbilduz gero, feminismoaren 'anti-porno' eta 'pro-sexu' mugimenduek eztabaida zorrotzetan murgildurik zeuden ordurako, elkarloturik zegoen beste zatiketa bat, hau da, pentsakera feministaren beste aldaketa garrantzitsu bat, indartsuki nabaritzen ari baitzen.

Eta, oraingoan, kolorezko emakumeek kaleraturiko idazlanen sakabanaketa erlatiboki zabalen bitartez, emakume mugimendu 'nagusiaren' gehiengoan ezkututzen zen arrazismo inplizittoa gogorki salatzen eta kritikatzeko hasiak ziren.

## ARRAZA JENEROAREN AURKA

Teresa de Lauretisen arabera, arraza jeneroaren aurkako arazoarekin loturik sortu zen zatiketak, (eta emakumeen zapalkuntza, erresistentzia eta agentetasun tankerak zehazterakoan bakoitzak gordeko zuen garrantzi erlatiboak,) 'Mendebaleko feminismo zuri' eta 'Hirugarren munduko feminismo'-aren arteko oposaketa ekarri zuen emakumeen mugimendu globalean<sup>[10]</sup>.

Azken hamarrurtealdietan, kolorezko emakumeak, simultaneuski feminismoaren eta mugimendu anti-arrazisten 'barrutik' eta 'kontra' aritu izan dira. Menderapenaren modu desberdinak eta hauei dagokien sujetoaren eraikuntzak aztertu eta desafiaturakoan, ikusbide bakunak aldamenetuz, hurbilpen anikoitzen beharrea insistitu dute. Eta, honezaz gainera, azterlarien interbentzio kritikoei baliogarritasuna onartzeko zenbait baldintzapen ezarri dute. Gaurregun, hain zuzen ere, Michelle Wallace eta bell hooks moduko feminista beltz, afro-amerikar eta ekintzaile erradikalek, bata bestearen atzetik baieztatzen dutenean, lehenak, feminista zuriek betidanik hitzegin dutela feminismo beltzari buruz, nahiz eta alderantzizkoa inoiz ez gertatu, eta, bigarrenak, emakume zuriek ezin dutela irudikatu beltzak oraindik terrorizatuak sentitzen direla; edo, hirugarrenez, kolorezko emakume indiarra eta literatur-kritikalari poskoloniala eta subalternoa den Gayatri Chakravorty Spivak feminista/marxistak, kritikatzeko eskubidea irabazteari buruz hitzegiten duenean; hirurak batera, hau da, Wallace, hooks eta Spivakek, arraza eta jeneroaren politikarekin loturik dauden, eta ahots eta errepresentazioarekin zerikusia duten arazo pare bat jasotzen dute gutxienez:

Hasteko, kolorezko emakumeen 'ixiltasunak' osatzen duen fenomenoaz aztertzen dute. Eta, gero, norbaitek edo edozeinek beste batzuen alde hitzegin dezakeen, edo beharko lukeen eztabaidan, zenbait baldintza ezartzen dute.

Emakume beltz 'bortitz' eta 'makurra' omen delaren itxurapena alde batera utziz, bell hooksek (1992:345) ondorengoa gogoratzen du; alegia beltzak, oraindik gaurregun, ikaratuta (hau da, terrotizatuta) sentitzen direla; eta ikara hori zuriatasunarekin (edo nagusitasun eta menderapen zuriaren gaurregungo adierazpenekin) loturik jarraitzen duela. Arazoa, ordea, beltzen zuriekiko beldurtasunaren modu desberdinak gutxitan ahozkatzen direla litzateke. Eta gutxitan ahozkatzen direla, gainera, oso errezki ixilgarriak direlako: bai zurien partetik arrazismo alderantzian salaketa dela medio, edo, bestela, tratu berezia eskatzeko asmoarekin, beltzen jarrera kexatiak, biktimazio hutsaren baliabidez erabiltzen direla sugerituz.

bell hooksekin bat etorritik, Michelle Wallacek (1992:664-5) ere, beltzen gehiengoarentzat baldintzapen materialak oraindik ez direla larregi aldatu gogoratzen du. Baina Wallacek (eta hau Baina haundi bat da,) beltzekiko borondate onezko argumentuak ez ditu errez onartzen. Gizonezkoa ez den beltza eta zuria ez den emakumea izanik, arrisku berezia sortzen zaiola dio; ez soilik fronte baten baina bitan, hau da, patriarkagoaren eta nagusigo zuriaren aurka era berean borrokatzera behartzen diona.

Feminismo beltzaren tradizio laburretik sortu diren aurreikusmenek, bultzakada nabaria eman zuten errugabetasun beltzaren bukaera aitzineratzeko orduan. Feminismo beltzak zerikusi haundia izan zuen sujeto beltzaren eraikuntzan, gizon beltzek gorde zuten monopolioa amaitzerakoan. Sujeto beltz errugabe eta esentzialaren bukaerak, gainera, feminismo beltzaren gero eta gehiagoko agerrera publikoa baimendu zuen; bereziki ekoizpen kulturalaren eremu zabalean<sup>[11]</sup>.

Eta, horregatik, Michelle Wallacek (Ibid:662) azpimarratzen duen bezala, feminismo beltza oraindik atzeratua baldin badago ere bere egitarau orokorraren mailan, ezin zaio gehiago begiratu hasieran feminismo zuri nagusiak erakutsi zuen misterioarekin.

Feminismo beltzaren egitaraua dela eta, Wallacek (Ibid: 660) egitarau horien azken asmoa kultur-kritikak idaztera ez dela soilik murriztu behar dio. Feminismo beltzaren proiektuak, kulturaren irakurketa zehatza, hertsia eta hurbila eskatzen du. Wallacek, eredu eta prozesu konplexuz osaturiko sarea balitz ulertzen du kultura<sup>[12]</sup>. Eta, testuinguru honetan, feminismo beltzaren kultur-kritikak, erresistentzia-ekintzak balira aldarrikatu behar dira. Zeren eta, patriarkagoaren sistemak osatzen duen nagusigoaren aurka, eta kultura zuri baztertzailerik eta arrazista hegemonikoaren aurka kokaturik, feminismo beltzaren kreatibitatea eta sortzaileratasuna berez baitira izan potentzialki subertsiboak.

Esandakoaren arabera, sujeto eme beltzaren errepresentazio lanetan aritzerakoan, feminismo beltzak kritika oposizionala areagotze-lanetan aritu behar du. Edo, beste modu batera esateko, feminismo beltzak, sujeto eme beltzaren errepresentazio oposizional kritikoa insistitu behar du.

Hala eta guztiz baina (eta, hau beste Baina haundi bat da), feminismo beltzak (edo, kasurako, beste edozein egitarau eta/edo proiektu eraldatzaileek,) orokorrean emakume beltzen (edo beste talde menperatuen) **alde** hitzegiteko ahalmena eta/edo gaitasuna ez-kritikoki asumitzearen ideia zalantzan ezartzekoa da.

## 'BESTEA' ERREPRESANTATZEN

Misterioarekin begiratuz ala ez, feminismo beltzaren ahotsak oraindik kolorezko emakumeen egiturazko 'ixiltasun' tradizio luze batean murgilduak daudela onartzea beharrezkoa da. Ahotsak esperientzia definitzeko ahalmena dakar. Ixiltasuna ahots-eza da, maila kolektibo eta instituzionalean ahotsaren ukamena da.

'Ixiltasun' honek, emakume beltzen estatus eta/edo baldintzapenak gizartearen mailan aldaerazteko ahaleginak hondamenera kondenatzen ditu. Emakume beltzen gehiengo, 'ixildua' egonik gain behartsua dago; hau da, emakume beltzen gehiengo honek hezkuntza desegokia jasotzen du, osasun zainbide aproposik ez du lortzen, egoitza dezenteak eskuratzeko ahalbiderik ez du aurkitzen eta, orohar, bizi publikoan agertzeko aukera errealik ez du ezagutzen.

Testuinguru honetan, Gayatri Spivakek (1988) ere, Indiako emakume gehienak puntuan aipatutako giza-arazo berdintsuen ondorioei aurre egiteko beharrean aurkitzen direla dio. Eta, modu berdinean, Spivakek holaxe izendatzen duen "emakume pos-kolonial subalterno"-en gehiengoak ere ezin du hitzegin, hau da, derrigorrez ixildua dago.

Egoera hau onartu eta konpartitu ondoren, halere, Spivakek beste jendeekiko errepresentazioari loturiko azterketek berezko arazoa osatzen dutela dio. Besteen errepresentazioa problematikoa da. Ikerlariaren lanean, zapalduetikiko kezka norberaren izatetik urrutiratzearen gakoa jasotzen du. Australiarra den Sneja Gunew (1993:1994-1995) literatur-kritikalariarekin izan zuen irratik elkarrizketa batean esango zuen bezala: Pertsona bat ez da gauza huts bakarra. Pertsona batek posizio deberdinak biztandu behar ditu. Eta, horregatik, talde baztertuen eta ixilduen alde, indiar, edo feminista edo marxista edo emakume bezala hitzegitearen kontuak beti dakar bai homogenizazioaren eta baita, beraz, erakuspen okerraren arriskua ere.

Spivak kolorezko emakumeek hedatu dituzten gai eta borrokaren historian kokatzen da zalantzarik gabe. Zentzu honetan, bere teoria eta diskurtsoak eguneroko bizirik jasotako ekite eta esperientziak isladatu nahi dituzte. Kolorezko emakume arrunten ikusmenak kaleratzea, teoriaren osagai garrantzitsua bilakatzen da. Hau kontutan harturik, are eta gehiago, 'komunitate', 'senitarte' eta 'arbaso' moduko hitzek, ez dituzte kontzeptu ahulak osatzen feminismo beltzaren pentsamenduan<sup>[13]</sup>; talde eraginkor baten parte hartzerakoan, bata bestearekiko axola, elkartasun emozionala eta indar espiritualaren iturriak osatzen dituzte. Talde hurbilak eta tradizio familiarak seriooki kontutan hartuz, gainera, kolorezko emakumeen maila desberdineko ikusmenek, feminismo orokorraren pentsamendua bera aldatzen lagundu dute. Emakume beltzen ekintza politikoz eta esperientzia komunitarioz osaturiko historia luzearekin, feminismoaren praktika eraldatzaileak sendotasuna eta iraupena segurtatu du.

Baina kolorezko emakumeen mugimendua, bere historia berrian landu dituen diskurtsoekin, proposatu dituen jarrerekin eta aurrera eramantzen dituen ekiteekin, feminismo beltzaren zenbait xehetasun eta kualifikazioz tartekatu da; batez ere, identitate anikoitzen inguruan hedatu diren ikusmenen inguruan sendotu direnak.

Elkartasun komunitarioaren zentzua goraiatuz gain bada, kolorezko feminismoetik sortzen diren teoria emankorrenak, nortasunaren anizkoiztasuna -eta ez batasuna- azpimarratzera eta onartzera bultzatzen dute. Eta, izanez ere, azterketaren maila honetan da Spivakek, beste-aren posizio desberdin ugarien errepresentazioekin aritzerakoan, talde baztertuekiko arduratsu, eskubidedun eta solidarigariak izan arren ere, generalizazioaren arriskua eta bereiztasunaren ukamena dakartela adierazten duela.

Gilles Deleuzek Michel Foucaultekin (1979:80) izan zuen elkarrizketa baten ondorengoa esan zion: Nik uste zu izan zara zerbait oinarritzkoa erakutsi digun lehena, bai zure liburuetan eta baita eremu praktikoan ere: **besteen alde hitzegiteak osatzen duen indignitatea** (enfasia nirea).

Beste-aren errepresentazioarekin gauzatzen den problematika, ez da soilik emakumismo beltzak eta feminismo subalternoak emakume mugimendu globalaren barnean sortarazten dituen eztabaidetara laburtzen. Era berean, elkarloturik dagoen beste arazo berezi eta konplexu baten kontu ezinbestez garrantzitsuagoa ematen du. Hain zuzen, feminimoaren bai barneko eta baita kanpoko kritiketan ere, gizonezkoen (beltz edo zuri) zereginak eta harremanak non kokatu daitezkeen galdekizun ihesezinaren gakoa agertzen da hemen, indartsuki.

Printzipioz behintzat, inolako jenero berezitasunen, sexu-portaeraren, edo identitate sozial, kultural eta abarren parte izatearen derrigortasuna ez litzateke azterketaren hasierazko eredia izan behar; eta ez luke garrantzi erabakikorra eduki behar edozein gaietaz (feminismoa barnean dagoelarik) aritzeko.

Ekintza politikoaren mailan, ikusmen hau,- hau da, gizonen eta emakumeen arteko integrazioaren aldeko jarrera-, tradizionalki, nahiz eta kritikoki defendatu duten feministak, marxismoarekin eta sozialismoarekin harremanak onartzen zituztenetik etorriko zen gehienbat<sup>[14]</sup>. Feminismo separatistaren aurka kokatuz, kolorezko feministen ildotik bideratutako ikuspuntuak oinarritzko jarrera biltzaile hau onartzen dute. Baina, modu berdinean, beste zenbait zehaztasunen premiari balioa eman diote.

Zehazkiago, giza-eraldakuntzaren posibilitateak aragotzeko orduan, kritikatzeko eskubidea irabazi egin behar da feminismo beltzaren arabera. Eta kritikaren eskubide hori lortzeko, norberaren posizioa problematizatu egin behar da. Orohar, kolorezko eta/edo feminismo beltz kritikoak eskatzen duena zera da: Alegia bestearen (kasu honetan, emakumearen) posizioa betetzen ikasi aurretik, norberaren (kasu honetan gizonezkoen) diskurtso eta posizio nagusi edo hegemonikoak 'des-hegemonizatu' behar direla.

Spivakendako (1993:197-98), hain zuzen ere, kritikaren eskubidea irabazteko, ikertzaileak bere posizioa historikoki kritikatu behar du. Eta, honek, kanpoko mundua ikastearen lan arriskutsua inplikatzeko du.

bell hooksek (op. cit.:346) bere aldetik dioenez, bestalde, gizon zurien historiarekiko kritikoki berposizionatzearen prozesu honek, zurtasuna eta terrorearen arteko disoziazioa ahalmentzen du irudimen beltzean. Eta, interbentzio kritikoak izanik, arrazismoaren kontra kokatzen diren zuri aurrerakoen onarmen eta ikerketa historikoen bi gauza lortzen dituzte simultaneuski: Euren eginkizun kulturelek nagusitasun zuria nola ber inskribatzen duten ulertzera baimentzen die, horregatik halako erru, bekatu edo ukamen zentzu gelditzailerik bultzatu gabe.

---

Bestearekin identifikatze (edo Eve Kosofski Sedgwick (op. cit.) esango lukeen bezala 'alo-identifikatze') arriskutsu hau da, zerbait izatekotan, feminismoaren zenbait historia, praktika, teoria, diskurtso, jarrera eta ekiteen azalpen hau idaztera bultzatu nauenak. Eta ez historikoki zamatutako bekatu zentzu gelditzaileak erakusteko desira ezkutu eta indignorik. Asmo hauek nolabaiteko generalizaziotik, eta, dudarik gabe, feminismoaren zenbait erakuspen ezoso eta okerretatik ezin dutela ihes egin, esan beharrik ere ez dago.

## **FEMINISMOAREN JOERA EROTIKOA ETA JOERA ETIKOA**

Beraz, ni mindu nahi baduzu, nire hizkuntzari buruz txarto hitzegin ezazu. Identitate etnikoa identitate linguistikoaren azal birkia da - ni nire hizkuntza naiz. Texasko espainol txikanoa legitimotzat onartzeko gauzaizango naizen arte,-Tex-Mex eta hitzegiten ditudan beste hizkuntza guziak, -ezin dut onartu nire buruaren legitimitatea... eta ingeles hizlariekin moldatu behar naizen neurrian, alderantziz eurak nerekin moldatu beharrean, nire mina ilegitimoa izango da. Nire izatearekin ez naiz gehiago lotsaturik egotera beharturik izango. Nire ahotsa izango dut: India, espainola, zuria. Nire suge mina, nire emakume ahotsa, nire ahotsa sexuala, nire poetaren ahotsa. Ixiltasunaren tradizioa gaingituko dut. (Gloria Anzaldúa, 1987)

Odol eta ahaidetasunen nahasketak, nire baita lardaskatu edo desorekatu beharrean, nolabaiteko ekilibrioa lortzera behartu nau. Bi kulturak lekua ezeztatzen didate **euren** unibertsoan. (Leku) horien eta

beste askoren artean, nire unibertso propioa eraikitzen dut, **El Mundo Zurdo**, (Mundu Ezkertia). Ni nirea naiz eta ez beste inorena. (Gloria Anzaldúa, 1983)

Bi aipamen hauen bitartez, Gloria Anzaldúak ondo laburtzen du orain arte esandakoak. Dibertsitatearen eta diferentziaren diskurtsoek, kontzeptu hauek eskeintzen dituzten eremu aldatzaile eta anikoitzen isladapena osatzen dute. Dibertsitatearen eta diferentziaren nozioek, agintea eta/edo boterea kulturaren arlo desberdinetan desberdinki kokatzen d(ir)ela erakusten dute. Kulturaren muga moduaskotariko eta ezegonkorretan, desberdintasunaren, borrokaren eta historiaren harremanak ez daude finkatuak. Diferentziak modu askoren bidez eta kontraesankorki adierazten dira gizaki indibidualetan eta talde desberdinen barnean.

Texas eta Mexiko arteko muga biztantzaren duen emakume mestiza bat izanik, bestalde, identitate txikanoa arrazismoaren aurkako erresistentzia-historia luze batean oinarritu dela baieztatzen du Anzaldúak. Baina, honetaz gain, feminismo nagusiaren akatsak ere astintzen ditu lesbianismo txikanoaren ixiltasuna gainditzeko asmoarekin. Anzaldúa, horrela, kolorezko emakumeen kritikan aintzindari onartua bilakatzen da bere feminismoaren teoria txikanoa 'Mundu Ezkerti'-aren esparru intimoan kokatuz; zeina, gainera, "Hirugarren munduko emakume, lesbiana, feminista, eta joera feminista duten kolore guzietako gizon"-endako feminismo internazionalaren 'etxera' sartzeko ataria izan daitekeen:

Guk ez dugu denok ideologia berdina eta ez ditugu konponbide berdintsuak sortzen. Gure arteko batzuk ezkertiak dira, beste batzuk magiaren praktikalariak. Beste batzuk biak. Baina kidekotasun desberdin horiek ez daude bata besterekin oposatuak. Nik nire kidekotasun propioekin eta nire jendea beraienarekin batera bizi gaitzke eta lurra eraldatu. (op.cit.1983)

Anzaldúak aipatzen duen feminismo internazionalaren etxeari, Teresa de Lauretisek "diferentziaren etxea" deitzen dio. Teresa de Lauretisek, feminismo globalak bere burua begiratzeko esparru berezi eta idealizatu bat errepresentatzea nahi du. "Diferentziaren etxe" barnean eta babespean, 'hitz fidagarrietan' sinestea, 'baimena' bortxarik gabe ematea eta 'elkar-hizkuntza propioa ameztea' posible bilakatzen da.

Feminismoaren barne-eztabaida nagusien laburpenak aurkeztu ondoren, idazlan hau emakume mugimenduan teoria eta diskurtsoaren mailan emandako sakabanapen zentzua azpimarratzera murriztu dela dirudi; eta jarrera eta ekiteen mailan sortutako zatiketa nabarienak agertaraztera.. Izanez ere,- eta laburpen biltzaile bat proposatzeko edo-, egia da feminismoaren 'kanpo'-ko baldintzapenen aurkako borroka alderantzaile eta ukazaleetan, eta/edo 'barne' polarizazioetan, emakume mugimenduak ahak izan dituen teoria kritiko guziak eskuratu eta erabili dituela.

Feminismoaren azterketa eraldatzailetan, bai laburki aipatuak izan diren pentsamendu sozialistamarxistak edo posestrukturalismoaren esparruan hedatzen den dekonstruzioak, eta baita, hain esplizitoki kontutan hartu ez badira ere, nolabait agerian dauden posmodernismoak eta psikoanalisiak<sup>[15]</sup>, eragin nabarmena (izan) dute. Hau esanez gero, ahaztezina da, era berean, feminismoaren iturri nagusi bat bere teoriaren aurkako jarrera eta ekiteekin garaitu dela.

Aipatutako eztabaida eta norabide politikoetara berriz hurbiluz gero, pornografiaren ebaluaketa arazo kritikoa bilakatu zen diskurtso feministen barnean. Aipatzeke gelditu den beste arazoa baina, kultura dominatzaile edo hegemonikoak sexualitate erotikoa promozio kontsumitzaileko erabiltzen duela litzateke. Eta, hau hola izanik, oso zaila dela feminismoa bezalako kultura gehienbat oposizional baten barnean jarrera politiko moralizatzaile hutsak ez direnak beregaintzea.

Zentzu honetan, pornografiaren aurkako mugimenduaren eta gizarteko indar kontserbadoreen artean sortuko diren aliantza paradoxikoak ezinbestez problematikoagoak izango dira. Ez bakarrik gutxiengo sexualen eskubideak seriooki arriskuan jarriko dituztelako, baizik eta, era berean, feminismo nagusiaren emakume zuriaren esperientziak, aipagabeko edo aitorgabeko erreferentzia bakartzat hartuko direlako; horrela, are eta gehiago, kolorezko emakumeen esperientzia kultural eta politiko konplexuak ezabatuz<sup>[16]</sup>.

Feminismoaren pentsamendu, izate eta historia eraginkorrari buruz aritzerakoan bada, eztabaida eta ikuspuntu desberdinen arabera eta bitartez eratu dela esan beharrezkoa agertzen da: Historikoki, jarrera politiko eta kontzeptualizazio kontraesankorrez burutu dira feminismoaren egitarauak.

Teresa de Lauretisek dioenez, ordea, kontraesankortasun hau da izan, nazioarteko emakume mugimendu globalaren diferentzia espezifiko eta esentziala osatzen duena. Eta feminismoak osatzen duen diferentzia espezifiko eta esentzial honek, emakume mugimenduaren barne oposaketak eta zatiketak barne-edukitzeko ahalbidea dakarte. Feminismoaren historia gertaberriaren pentsamenduak, eztabaidak, jarrerak eta ekiteak hurbiletik begiratuz gero, hain zuzen ere, emakume mugimenduan eman diren zatiketa guziak bi joera nagusietan batu daitezkeela sugeritzen du Teresa de Lauretisek.

Lehen joera **EROTIKO**ak, diferentzia, matxinada, ausartasuna, neurrigabetasuna, subertsioa, desleialtasuna, agentetasuna, eskubidepena, atsegina eta arrisku gisa biziagotzen diren feminismoaren imajinak ekoiztu ditu, era berean ezinegina, biktimazioa, menperaketa amore ematea, pasibotasuna eta konformismoa errepresentatzen dituzten imajinak baztertuz. Feminismoaren bigarren joera nagusia, bestalde, hau da, joera **ETIKO**a, erkidetasunaren eta erantzumenaren alde aritzen saiatu da; munduko emakumeen elkarkidegoa osatu nahi izan du arduratasuna, aizpatasuna eta elkartasunaren zentzua sakonduz.

Teresa de Lauretisen arabera, joera erotiko eta etiko bi hauen inguruan eraiki diren autoerrepresentazioek, feminismoaren barnean antolatu diren mugimendu desberdinak ezagungarritu dituzte. Feminismoaren autoerrepresentazioak, emakume mugimenduaren kontradikzioz eta polarizazioz beteriko kondizio historikoki esentziala eta intrinsekoa erakusten du. Baina, era berean, pentsamendu feministaren prozesu sortzaileak gorde izan duen espezifikotasunak, aipaturiko 'diferentziaren etxe' baten imajinatze edo asmaketa kontzeptuala baimendu du.

Feminismoaren izaera tentsioen tentsioz eta ezezkotasun kritikoz eratu da. Baina, simultaneuski, hitz fidagarriez eta baimena emanez ameztu izan duen elkar-hizkuntza propioak, gizartearekiko politikaren baikortasuna astindu du. Feminismoaren teorizatze ahalbideak, giza-eraldakuntzaren eta berrikuntzaren posibilitatea ameztu du.

Zer esanik ez, batez ere joera etikoan bildu eta babesten den giza-aurrerapen, askapen eta emantzipazioaren aldeko sinismen zuzenen baliogarritasuna zalantzan ezarria izan da maiz. Jadanik aipatua izan (eta oraino izango) den Meaghan Morris (1988) moduko militante feministak, adibidez, autokritikoki eta autoerreferentzialki ikusten ditu feminismoaren diskurtso teoriko eraldatzaileak. Posmodernismoaren esanahiak gogogutziz besarkatuz ere, elite batena balira atzematen ditu; seguraski esparru (gehienbat akademiko) zenbaitetan oraindik ere modan dirauena, baina, azken finean, 'emakume arruntent' bizimoduekin kontrajarriz, guztiz ezezaguna eta desegokia dena.

Dick Pels eta Aya Crebas (1991) bezalako beste ikerle batzuk, aldiz, beste ikusmen hedatu baten kontua ematen dute. Feminismoak 70. hamarkadan sendotutako guda mentalitate erasokor eta moralizatzailea utzi duela diote, eta, gradualki, tankera eta apainkera femenoagoak bereganatu dituela: Borroka mingotsenak honez gero gatazkatu direnez, guda-jantziak lurperatu daitezkeela orain, eta berriki irabazitako baieztakortasun zentzuari uko egin gabe, "feminitate berri bat" agertarazi daitezkeela onartzen dute.

Dena den, feminismoaren ondorioak ez dira makalak izan bere erreferentzia-marku edo diferentziaren etxetik kanpo. Feminismoaren dimentsioak, gure bizimodu pertsonal, sozial eta politikoaren alde guziak argitu eta galdezkatu ditu. Emakume mugimendu(ar)en mezuak ez dira bakarrik emakumezkoek gizonetzkoen pareko aginte eta estatus berdina lortu behar dutela. Era berean, aginte eta estatus horiek zalantzan jartzen dituzte. Honezaz gainera, feminismoaren mezuek ez dute aldarrikatzen emakumeen partehartze nagusiagoa munduaren onerako dela soilik. Munduaren iraupenerako giza-historiaren 'feminizazioa' beharrezkoa dela azpimarratzen dute, hain garrantzitsuagoki.

Praktika bat bezala, beraz, feminismoak ez du osatzen halako arazo isolaturen bat. Ezta, gutxiago ere, beste proiektu politikoaren helburuak gainosatze eta sostengatzeko erabili daitezkeen nolabaiteko egitarau aldameneko edo azpikoa<sup>[16]</sup>. Teresa de Lauretisek azpimarratzen duen bezala, feminismoaren lekua historikoki zehaztatua eta berzehaztatua dago zenbait gertakizunen arabera. Pentsamendu feministaren prozesu sortzailea (joera etikoa) bere muga diskurtsiboetan (elkar-hizkuntz ameztua) eta bere xede subjektibo (joera erotikoa) berezi eta intrinsekoen espezifikotasunean datza; zeinak, are eta gehiago, kanpoko testuingurua eragin propioz kudeatzeko ahalmena ematen baition.

Nahiz eta betidanik autoerreferentzialki kritikoak edo berriki 'feminizatuak' egon, feminismoaren barnean badago oraindik hainbat gaizerrenda eta ikuspuntu lanean. Feminismoaren gaizerrenda, egitarau, ikuspuntu eta jarrerak oraindik hor daude eremu publikoan eta pribatuan aldakuntza eta posibilitatearen politikak artikulatzeko lanean ahalegintzen; eta maila kultural, politiko eta sozialean, agentetasuna eta ekintza eraldatzaile baikorra teorizatzen.

Sneja Gunewk (op. cit:198) esango lukeen bezala, gainera, gaurreguneko beste ekite eta proiektu politiko eraldatzaile desberdinetara zuzendurik, emakume mugimenduaren beste mezua zera litzateke, alegia eraldakuntzaren estrategian etengabe egon behar dela kanpaina politikoetan sartuta; hots, politika zehatz batzuen bidez, gure inguruko gertakizunen jakinean egon behar dugula, eraberritzapen zenbait gertarazteko.

Horregatik da, beraz, oraindik beharrezkoa feminismoaren eskakizun historiko eta eraikuntza teorikoen ulermen zabala; ez halako 'iragan heroikoa' berbaieztatzeko edo zenbait ideien historiak erakusteko, baizik eta giza-aldakuntza eta hobekuntzarako posibilitatearen itxarobide eta promesak mantentzeko.

## **OHARRAK**

[1] Simone de Beauvoirrek emakume mugimenduaren bere historia ematen du. Ikus, batez ere, "Bigarren sexu"-aren bigarren zatian (Historia), 4. eta 5. atalak. XVIII. mendetik aurrera Iparrameriketako feminismoaren historiari buruz, ikus, A. Kolodni (1993).

[2] Hizkuntzaren kritika feministak eremu zabala osatzen du. Ikus, Deborah Cameron, (1985,1992), Deborah Cameron (ed) (1990), Luce Irigaray (1985), Dale Spender (1980).

[3] Dekonstruzioa, Jacques Derrida filosofari frantsezaren estrategia ezagun eta guztiz eztabaidatuan oinarritzen da. Falogozentzismo hitza Falozentzismoa eta logozentzismoa hitzen amalgama osatzen du. Biak "sistema bakar bat osatzen dute: logos paternal baten erekzioa" (1982:172) (Barnarren lanean aipatua). Derridaren dekonstruzioarekin estrukturalismoaren metodo eta printzipioak erasotu ziren hasiera batean. Derridak (1972) estrukturalismoaren (eta, estenzioz, mendebaleko filosofiaren) 'oposaketa bikoitzak' nabarmentzen dituzten kontradikzioak eta paradoxak azaltzen ditu. Dekonstruzioaren lana harreman estruktural bat isolatzearekin hasten da (hemengo kasurako, gizon/emakume edo ar/eme). "Metafisikaren historiaren zehar... gizona, presentzia osoarekin, oinarri lasaigarriarekin, jokuaren hasiera eta amaiaarekin... amestu duen izate hori" da (Ibid:264-5). Gizonaren "presentzia", beraz, oinarritzakoa da. Eta emakumea, egitura zentratu horren deribatua da soilik. Gizon/emakume oposaketaren dekonstruzioa egiteko, prioritateak gainazpiratu behar dira hasiera batean, (ad., batzutan emakumeen balioak hobeagoak direla erakutsiz). Baina azterketaren azken emaitza ez da oposaketaren bigarren hitza gorengotzat hartzea (hau da, emakumezkoak oinarritzotzat eta gizonetzkoak deribatutzat ikustea). Dekonstruzioa antidialektikoa da. Egi finkatuen ideia ezeztatuz, oposaketaren eraikuntza osoa zalantzan ezartzen du, (ad., emakumeak eta gizonak, biak deribatutzat atzemanaz, edo, -ohiz eraginkortzat definituak dauden- arren eta -ohiz jasaletzat definituak dauden- emeen arteko harremanak, desberdintasunaren sail mugagabez eta zehazkabez sakabanatuz). Ikusmen honen bitartez, azterlaria, munduari buruz pentsatzeko ohiz erabiltzen dituen oposaketak berpentsatzera behartua dago. Mendebaleko pentsamoldetan sustraituriko 'presentziaren metafisika' eta zentzu arruntaren esanahiak desafiitzen duen neurrian, edo desberdintasunaren mugagabetasuna azaleratzen duen neurrian, dekonstruzioa ahalmengarria bilakatzen da kultura eta politikaren kritikan. Eta, izanez ere, aurrerago agertuko den nazionalismoari buruzko idazlanean, dekonstruzioan oinarriturik dauden zenbait irakurketa-teknika, naziotasunaren eraikuntzan erabiltzen diren makina bat espresabide zentratu, hertsia, mugarritu eta totalizatzaileen logika desegiteko baliagarriak izango dira. "Hizkera/idazkera" oposaketaren dekonstruzioa famatua aurkitzeko, ikus Derrida (1977).

Dekonstruzioa eta feminismoaren arteko harremanen kontu sakona jasotzeko, ikus Diane Elam (1994).

[4] Eve Kosofsky Sedgwickek emakumea dela dio, emakume gizona eta umerik sortuko ez dituen pertsona heldua. Honezaz gainera, ikusmen ezkor zenbaiten arabera sexualki perbertsua, eta beste zenbaiten arabera judua dela azpimarratzen du. Deskribapen hau intersgarria da geroago identitatea eta diferentziaren gaiari loturik datorrenerako.

[5] E. B. Freedman eta beste idazle laguntzaile batzuk (1985) adierazten duten bezala, bestalde, aukera sexuala, hizkuntza eta agintearen arteko lotura agerikoa isladatzen da emakume separatisten eslogan honen bitartez.

[6] Arlo berri honetan nagusitu den literatura kritikoa gero eta zalabalagoa da. Saiakera 'klasikoz' eta berriez beteriko ikasketa gay eta lesbien antologia multidisziplinario adigarriena begiztatzeko, ikus, Henry Abelove, Michele Aina Barale, David Halperin (eds) (1993). Vera Whisman (1996) irakasleak, identitatearen politika eta aukera sexualaren arteko harremanak ikertzen ditu makina bat elkarrizketa zuzenen emaitzak kaleratuz. Gay/lesbianen teoriak arakatzeko, ikus Diana Fuss (1992). Monika Dorenkamp eta Richard Henkeren (eds) (1995) bildumak, aldiz, esperientzia eta gertaera materialak azpimarratzen dituzte batez ere.

[7] "Gizartea aldatzeko teoria bat eraikitze"-ko asmoarekin bere idazlana amaitzen duen Mila Amurrio (1995:91) soziologia irakasleak, feminismoaren barnean emandako jenero eta sexu kontzeptuen arteko bereizkuntza aztertzen du: "Jeneroaren hasierako erabilerak, sexuen arteko ezberdintasun biologikoen aurrean, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunen izaera soziala azpimarratzen zuen. Sexua natura zen eta jeneroa haziera. ... Baina (...) sexu eta jenero kontzeptuen arteko harremana korapilotsuagoa da".

[8] Laura Kipnisen idazlanean (op. cit: 374) aipatua.

[9] Gayle Rubin eritziak ez dira guztiz zuzenak. Egia da, historikoki, eta, batez ere, Europako emakume mugimenduaren bigarren olatuan, feminismoa eta marxismoaren arteko harremanak nahiko zailak izan zirela. Eztabaida hauetan prioriteteen gradazioak tinkoki finkatuak zeuden. Heidi Hartmann (1979) feminista marxistak esan zuen bezala "marxismoa eta feminismoa integrazteko ahalegin berriak ez dira guretzat, feministontzat, gogobetezkoak, zeren eta borroka feminista kapitalaren aurkako borroka 'zabalagoan' barrutzen baitute". Baina honek ez zuen esan nahi, feminismoak klasean oinarrituriko azterketek baztertu zuenik. Feminista marxista eta sozialistak emakumeen subordinazioa sistema kapitalistarekin guztiz elkarloturik zegoela baieztatzen zuten.

[10] Hirugarren mundua, hemen, ez da geografikoki definitzen (bestela ere gero eta murriztuagoa den erabilera arruntan). Hirugarren mundua, errekursoen eskastasunekin elkarloturik dauden baldintzapen sozialekin bateratzen da. Hirugarren munduko feminismoa, batez ere Estatu Batuetan 'emakumismo beltza' eta Indian 'feminismo subalterno' izenekin ezagutzen dira.

[11] Jacqueline Bobo media irakasleak (1988:104) zera dio: "Orainaldiko idazkera eta 1920-ko Harlem Berpizkunde ondo ezagunaren, 1940-ko protesta literaturaren eta 1960-ko literatura beltz ekintzailearen arteko desberdintasun nagusia zera da, gaurregun emakume idazle beltzek erakusketa eta onarketa gehiago lortzen ari direla. Idazkera beltzaren aurreko garaian, idazle arrei erakusketarako nagusitasuna eman zitzaion, eta euren lana zuria zen irakurleko bateruntz bideratua zegoen. Beltzen zapalkuntza arrazismo zuriaren emaitza zuzena zelako, datu hau zurieri erakustearekin aldakuntza lortuko zela sinisten zuten idazleek. Alderantziz, azken berrogei urtetako emakume idazleen lana, komunitate beltzera bideratu da gehienbat".

[12] Ikus, Anbibalentziak 1-en amaiera.

[13] Feminismo beltzaren jarrera eta ekite politiko, diskurtso eta pentsamenduari buruz hurbilpen sakona lortzeko, ikus, Patricia Hill Collins (1990).

[14] Michelle Barrett (1980) soziologiako irakasle britaniarrak esango zuenez: "Feminismoak ez du soilik gizonak eta emakumeak, edo biak, orain daudenenetik aldatzearen alde egiten, hauen arteko harremanen aldatzearen bila ere baitabil. Honetarako oinarria emakumeen askapenerako mugimendu autonomo baten bidez lortuko bada ere, estrategiak gizonekin batera konpromisua eskatzen du, eta ez separatismo absolutoaren politika. Gizon sozialistek, beste gizonek bezala, emakumeen askapenak dakarren aginte politiko eta abantail sozialak galtzearen aurka egiten dute, baina, beste gizonek baino gehiago, gaurregun eta iraganean, borroka feminista sostengatzeko asmo politikoak erakutsi dute".

[15] Posmodernismoa eta feminismoaren arteko harreman zailen laburpen bat bakarrik emate arren, ikus, Linda Hutcheon (1989). Psikoanalisari buruz, berriz, esan beharrik ere ez dago, feminismoaren beste zatiketa nabarienetariko aldekoei eta kontrakoekin artean ematen dela. Baina, nahiko ironikoki, edo holaxe dio behintzat Teresa de Lauretisek, eztabaida honek oso parte txikia bete zuen



sexualitatearen inguruan emandako sexu-gudetan. Eztabaida berezi honi buruz aritzen den liburu argigarria Teresa Brennanek (1989) apaintzen duen bilduman aurkitu daiteke.

[16] Aliantza hau, esplizitoki baino gehienetan tazitoki emango da mendebaleko gizartetan. Bereziki Estatu Batuetako mugimendu anti-pornoaren eta emakume beltzen arteko harreman guztiz hertsakorren balioztapen historiko interesgarria jasotzeko, ikus, Kirsten Marthe Lentz (1993). Artikulu berdinen atal baten (**Pleasure and Danger**, Ibid: 388-394) Lentzek, hemen aurkeztu diren eztabaida orokorraren esanahi eta emankizunak erreparatzen ditu.

[16] Beste azalpen baten agerikoa suertatuko denez, esandako hau oso aproposa da nazionalitate minorizatuen barnean ematen diren nazionalismoa eta feminismoaren arteko eztabaida sarritan zorrotzak aztertzeko. Esan bezala, feminista sozialisten eta kolorezko emakumeen aurkikuntza heuristikoa nagusia, agian, zapalkuntza guztiak baterakorrak ez direlaren oharkuntza minberatsuan datza. Zapalkuntza guztiak ez dira paregarriak. Desberdinki sailkatuak eta apainketa konplexuetan gurutzatuak daude. Arazoak multzoka gertatzen direnez, nahasketa asko suerta daiteke kontingentzia desberdinak erakusten dituzten zapalkuntza arazo bi edo gehiago leku berdinean gertatzen direnean. Ikerketa kritikoari dagokionez, beraz, beti agertuko dira zailtasunak, bikoizten diren zapalkuntzen azterbidezko tratamenduaren ikus puntutik. Halere, nazionalitate minorizatuen barnetik aritzen diren feministentzat, identitate nazionala eta jenero identitatea zapalkuntza eta erresistentziaren ardatzak maila berdintsuetan eratzen dira. Hau da, bi borroka (patriarkagoaren eta estatu zapaltzailearen aurka) batera eramatea posible bezainbat baliagarria da ihauduera oposatzaile eta eraldatzaileak sostengatzerakoan. Ikusmen honekin, gainera, ez da funtsezko prioritategen gradaziorik ematen. Bi borroka parez pare ezartzen dira. Baina, horrela, feminismoak osatzen duen egitarau propioa (emakumeen egiturazko diskriminazioa gainditzea alegia) bertan bera erortzen da. Zeren eta, izanez ere, elkartasuna eta berdintasunaren bila ibiliz, feminismoa kontsezioak egitera prest badago ere, nazionalismoak, bere aldetik, ondo asko finkatzen baititu komeni zaizkion gradazio ardatzaileak: Nazionalismoaren lehen eta azken helburua naziotasun osoaren lorpena denez, emakume mugimenduaren aldarrikapenak berez daude irentsiak borroka nazional oro azpibabestzailearen 'kausan'. Eta, hau hola izanik, jeneroari loturiko zapalkuntza/erresistentzia eta historiaren ardatz berezien inguruan eraikitzen diren politikei, nahitaez ematen zaizkie bete nahi ez duten leku subordinatua.

## BIBLIOGRAFIA

- Abbot, P, Wallace, C. (1993) *An Introduction to Sociology. Feminist Perspectives*, Londres: Routledge.
- Abelove H., Barale, M.A., Halperin D., (eds) (1993) *The Lesbian and Gay Studies Reader*, Londres, New York: Routledge.
- Amurrio, M. (1995) "Jenero kontzeptuaren inguruko hausnarketak" in Uztaro, Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, 14. zka., 89-98, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Anzaldúa, G. (1983) 'La Prieta' in C. Moraga, G. Anzaldúa (eds) *This Bridge Called My Back: Writings by Radical Women of Color*, New York: Kitchen Table.
- Anzaldúa, G. (1987) *Borderlands, La Frontera: The New Mestiza*. San Francisco: Spinsters/Aunt Lute.
- Barnard, M. (1993) "Economy and strategy: the possibility of feminism" in Jenks, C. (ed) (1993), *Cultural Reproduction*, Londres, New York: Routledge, 17-35.
- Barret, M. (1980) *Women's Oppression Today: Problems in Marxist Feminist Analysis*, Londres: New Left Books.
- Bobo, J. (1988) "The Color Purple: Black women as cultural readers" in E. Deidre Pribram (ed) *Female spectators. Looking at film and television*, Londres, New York: Verso, 90-109.
- Brennan, T. (ed) (1989) *Between Feminism and Psychoanalysis*, Londres, New York: Routledge.
- Cameron, D. (1985,1992) *Feminism & Linguistic Theory*, Houndmills, Basingstoke, Hampshire eta Londres: Macmillan.
- Cameron, D. (ed) (1990) *The Feminist Critique of Language*, Londres, New York: Routledge.
- Collins, P. H. (1990) *Black Feminist Thought, Knowledge, Consciousness and the Politics of Empowerment*, Londres: Harper Collins.
- de Beauvoir, S. (1953,1987) *The Second Sex*, Itz. H. M. Parshley, Britania Handia: Penguin Books.
- de Lauretis, T. (1987) *Technologies of Gender: Essays on Theory, Film and Fiction*, Bloomington, Ind: Indiana University Press.
- de Lauretis, T. (1989) "The essence of the triangle or, taking the risk of essentialism seriously: Feminist theory in Italy, the U.S. and Britain" in *Difference: A Journal of Feminist Cultural Studies*, 1(2), 3-37.
- Delmar, R. (1986), "What is feminism" in Mitchell J. & Oakley, A. (1986) *What is Feminism*, Erresuma Batua: Basil Blackwell, 8-33.
- Derrida, J. (1972) "Structure, sign and play in the discourse of the human sciences" in *The Structuralist Controversy, The Languages of Criticism & the Sciences of Man*, Macksey, R., Donato, E. (ed), Baltimore, Londres: The John Hopkins University Press, 247-272.
- Derrida, J. (1977) *Of Grammatology*, itz. Spivak, G.C., Baltimore: The Johns Hopkins University Press.
- Derrida, J. (1982) "Avoir l'oreille de la philosophie" in Culler, J., *On Deconstruction*, Londres: Routledge & Kegan Paul.
- Dorenkamp, M., Henke, R. (1995) *Negotiating Lesbian and Gay Subjects*, Londres, New York: Routledge.
- Dworkin, A. (1981) *Pornography: Men Possesing Women*, Londres: The Women Press.
- Elam, D. (1994) *Feminism and Deconstruction: Ms. en Abyrne*, Londres, New York: Routledge.
- Foucault, M., Deleuze, G. (1979) "Los intelectuales y el poder", in M. Foucault, *Microfísica del poder*, Ed. eta itz.: Julia Varela, Fernando Alvarez-Uría, Madrid: Las ediciones de la piqueta, 77-86.
- Freedman, E. B. (1985) *The Lesbian Issue*, Chicago: University of Chicago.
- Fuss, D. (1992) *Inside/Out: Lesbian Theories, Gay Theories*, London, New York: Routledge.
- Hatmann, H. (1979) "The unhappy marriage of Marxism and Feminism: Towards a more progressive union" in Lydia Sargent (ed) (1981) *The Unhappy Marriage of Marxism and Feminism: A Debate on Class and Patriarchy*, Londres: Pluto.
- Hooks, B. (1992) "Representing whiteness in the black imagination" in L. Grossberg, C. Nelson, P. Treichler, *Cultural Studies*, Londres, New York: Routledge, 338-346.
- Hutcheon, L. (1989) "Postmodernism and feminisms" in *Ibid, The Politics of Postmodernism*, Londres, New York: Routledge, 141-168.

- Irigaray, L. (1985) *Parler n'est jamais neutre*, Paris: Les Éditions de minuit.
- Kipnis, L. (1992) "(Male) desire and (female) disgust. Reading Hustler", in *Cultural Studies*, op. cit.: 373-391.
- Kolodni, A. (1993) " " in Ozieblo, B., (Ed) *Conceptos y Metodología en los Estudios sobre la Mujer*, Málaga: Atenea Univ.
- Kosofsky Sedgwick, E. (1990) *Epistemology of the Closet*, Berkeley: University of California Press.
- Lentz, K. M. (1993) "The popular pleasures of female revenge (or rage bursting in a blaze of gunfire)", in *Cultural Studies Aldizkaria*, 7/3, 374-405.
- Morris, M. (1988) *The Pirate's Fiancée: Feminism, Reading, Postmodernism*, Londres: Verso.
- Parmar, P. (1988) "Rage and desire: confronting pornography" in Cheste, G., Dickey J., (eds) *Feminism and Censorship*, Londres: Prim Press, 119-132.
- Pels, D., Crebas, A. (1991) "Carmen - or the invention of a new feminine myth" in M. Featherstone, M. Hepworth, B.S. Turner, *The Body*, Londres, California, New Delhi: SAGE publications, 339-370.
- Rich, A. (1980) "Compulsory heterosexuality and lesbian existence" in E. Abel eta E.K. Abel (eds), (1983) *The Signs Reader, Gender and Scholarship*, Chicago: University of Chicago Press.
- Ross, A. (1989) "The popularity of pornography" in A. Ross, *No Respect: Intellectuals and Popular Culture*, Londres: Routledge, 171-208.
- Rubin, G. (1984) "Thinking sex: notes for a radical theory of the politics of sexuality, Carole s. Vance (ed), *Plesure and Danger: Exploring Female Sexuality*, London: Routledge eta Keagan Paul, 267-319.
- Said, E., W. (1978) *Orientalism: Western Conceptions of the Orient*, Londres: Routledge & Kegan Paul, (1991) *Inglaterra: Penguin Books*.
- Spender, D. (1980) *Man Made Language*, Londres: Routledge & Kegan Paul.
- Spivak G.C. (1988) "Can the subaltern speak?" in Cary Nelson & Lawrence Grossberg (eds), *Marxism and the Interpretation of Culture*, Londres: Macmillam Education Ltd, 271-313.
- Spivak G.C. & Gunew, S. (1993) "Questions of multiculturalism" in Simon During, *The Cultural Studies Reader*, London, New York, Routledge, 193-202.
- Wallace, M. (1992) "Negative images: Towards a black feminist cultural criticism" in *Cultural Studies*, op. cit: 654-671.
- Whisman, V. (1996) *Queer By Choice*, Londres, New York: Routlege.
- Wollstonecraft, M. ([1892] 1982) *Vindication of the Rights of Women*, Harmondsworth: Penguin.